



Bizkaiko Foru
Aldundia
Euskara Saila

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Euskera

BBK



X A
K E

ma
te!

Astiaaldian sexismoari aurre egiteko aholku sorta


Editorea: Urtxintxa Eskola
Egilea: Emaisia elkarte
Babesleak: Bizkaiko Foru Aldundia
euskara saila eta BBK
Diseinua: TRAM grafik.
Lege-gordailua: BI-1625-04
2004ko ekainean inprimatua

Emaisia Elkarte
Zabalbide 26 behea
48006 Bilbo, Bizkaia.
Tel: 944320445
Fax: 944335905

emaisia
elkartea

urtxintxa
eskola

**e-maila: emaisia@urtxintxa.org
www.urtxintxa.org/emaisia**





X A **ma**
K E **te!**

Astialdian
sexismoari
aurre egiteko
aholku sorta

Aupa lagun!!

Egun hauetan nire buruan ideia batzuk buelta eta buelta dabilta. Begiralea naiz, begirale ona esango nuke, umeekin eta gazteekin aritzea gustuko dut benetan. Baina, kezka handi bat daukat. Zein eragin daukat umeengan?, Nolakoa naiz beraiantzat?, Zer egin dezaket guztion harremanak hobetzeko?, Zer eskaini pertsona zorientsuak izan daitezen?,...

Begirale garenok umeen eta gazteen garapenean erantzukizun handia daukagula jakin badakigu; hau dela eta, prestakuntza jaso dugu, programa eta proiektuak egiten ditugu, ondo pasatzeko ahaleginak egiten ditugu, ... eta gainera, hezitzaile lana eta figura bagara!!!!

Askotan ez da erraza, ez horixe!. Askotan gure gizarteko moda txarrak, joera baztertzailak, balore sexistak nahigabe transmititzen ditugu. Batzuetan ez dakigu non egon daitekeen keinu zikin hori, hitz madarikatu hura, jokaera sexista bera.

Ai, ene! Zenbat gauza ikasteko, zenbat gauza aldatzeko, zenbat gauza egiteko!!!. Ai, ene!!!! Hauxe da begirale baten bizimodua, etengabeko ardura eta lana!

Ze demontre!! Horri esker, gizarte honetan pertsona hobeagoak egongo dira eta gainera, guztion konpromiso eta inplikazioagatik, guztion partehartzeagatik, guztion ahaleginengatik.

Pentsa dezagun, ba!!!. Zer egin daitekeen umeak eta gazteak balore positiboetan hezteko???? BADAQIZUE...?

Badakizue?

- Errespetuan, elkertasunean, kooperazioan eta bizikidetzan oinarritutako astialdiko jarduerak, adin guztietako neska eta mutilek bere bizitzetan BERDINTASUNA integratzeko benetako aukera izan daitezkeela?
- Eta hau guztion BIZI-KALITATEA hobetzeko, norberarekiko eta besteekiko hobeto sentitzeko eta taldean onartua izateko bide lagungarria izango dela?
- Neska eta mutilen berdintasunak jarduerak egiteko AUKERA berdina izatea esan nahi duela?
- Jarduera guztietan BAKOITZAREN BEREZITASUNAK ETA EZAUGARRIAK kontuan hartzeko bideak daudela?
- DESBERDINA dena gutarra ere dela?, ni, zu, bera, desberdinak garela?
- Adina, sexua, generoa, jatorria, ikasketak, lanbidea eta abarrek ezin dutela oztoporik jarri edozein jardueretan PARTE HARTZEKO?
- Norberaren gustuak, desioak, beharrak, interesak, proposamenak, ideiak, elkarri ABERASTEKO HITZA dela?
- Gure lana EZINBESTEKO LANA dela? Gurea gurasoek, irakasleek eta lagunek egiten duten lana bezain garrantzitsua dela?
- Nesken kontrako biolentziaren adierazpenak asko direla eta SAHIESTU behar ditugula?
- Eta, guk asko egin dezakegula gure aisialdian pertsonen artean berdintasuna txiki txikitatik izateko?
- ...

bai, oso ondo... baina adibide zehatzetara joan gaitezen...

Hau guztia aplikatzeko hiru
esparru bereizten ditugu:

8 **Harremanetan**

1

- 10 **Begiraleen arteko harremanetan**
- 12 **Begirale eta neska-mutilen arteko harremanetan**
- 14 **Neska-mutilen arteko harremanetan**

16 **Programazioan**

2


- 18 **Programazioa egiterakoan**
- 20 **Programazioa burutzean**
- 22 **Programazioa baloratzean**

24 **Taldeko Egituran**

3

Harrema

Begirale eta



netan

1

Begiraleen arteko harremanetan
neska-mutilen arteko harremanetan
Neska-mutilen arteko harremanetan



Begiraleen artean

EGOERA

Antolatzen den ekintzaren arabera ardurak banatzerakoan edota inizatiba hartzerakoan neska eta mutilen begirale taldeak egitea. Hau da:

- Kirol ekintzetan mutil begiraleak nagusi izatea eta esku lan, antzerkia edo holakoetan neska begiraleak.
- Lanak banatzerakoan garbiketa, zainketa edota etxeko lanei lotuta dauden ekintzetan begirale neskek hartzea inizatiba eta antolaketa, egitura lanak (kanpin dendak jartzea, sua egitea gau belarako, musika aparatua jartzea, ekintzak aurrera eramateko toki bilaketa, ...), programazioan edo aisialdiko ekintzetan mutil begiraleak izatea nagusi.

IRTENBIDEA

- Egiten diren ekintza guztien antolaketa lanean eta balorazioetan kontutan izatea puntu hau.
- Begiraleen artean hezkidetzaz lantzeko guneak jarri: gai honi buruzko informazioa zabaldu beraien artean, ikastaroak, tailerrak, balorazioetan edo antolaketa eta programazio egiterakoan gai hau menperatzen duen norbait egotea....

AGENTEAK

- Arduraduna den elkarte edota erakundea.
- Zuzendaria edota koordinatzailea.
- Begirale taldea.

AHOLKUAK

HAU EZ

- Begiraleen artean sexu desberdintasunak daude, mutilak beti zuzendariak eta arduradunak izaten dira, udal arduradunekin hitz egiten dutenak.

- Orokorrean begirale neskak eta mutilak egotea onena dela esaten da, baina gu bakarrik neskak gara, zer egin dezakegu?

- Ordenagailuan musika programatzerakoan begirale mutilek egin ohi dute, beraiek dakitenak direlako edota beraiek inizatiba hartzen dutenak direlako.

HAU BAI

- *Neskek ere ardurak hartzeko prest egon beharko dute, lehenago ensaiatuko dira, bikoteka joango dira, bere erabakiak errespetatuko dira, ...*

- *Neska "bakarrik" egoteak ez du txarra izan behar, ez horixe. Emakumeok lana berdin edota hobeto egin dezakegu, gu ere tituludunak gara, guk ere esperientzia eta gogoia daukagu, guk gure lekua defendatu eta aldarrikatu behar dugu.*

- *Guztiok ordenagailua erabiltzen baldin badakigu, nork jartzen duen tartekatuta beharko dugu. Neska askok ez badakite, zelan egiten den elkarri trebatu behar diogu.*

Begirale eta neska-mutilen artean

EGOERA

Begiraleek jokabide eta jarrera batzuk normaltzat hartzea, mutilen gauzak edo nesken gauzak direla pentsatuz. Hau da:

- Mutiletan, mugimendu gehiago eskatzen duten jolasetan aritzea, espazio zabalagoa behar izatea, zarata gehiago ateratzea, ahotsa altxatzea...
- Nesketan: kirolak ez egin nahi izatea, eserita egotea hizketan, toki zabalik ez behar izatea jolaserako...

IRTENBIDEA

- Ez uste neska, neska delako, era batekoa izan behar denik eta mutila, mutila delako, beste era batekoa. Pertsona bezala hartu, osotasunean, dituzten berezitasun eta ezaugarri guztiekin.
- Begirale lanean animatu guztiak, neskak zein mutilak, denetarikoa egitera eta hitz egin beraiekin beldurrik gabe ateratzen diren gai guztiei buruz.
- Begirale neskek begirale mutilen besteko autoritatea dute neska-mutilen artean.

AGENTEAK

- Begiraleak
- Neska-mutilak

AHOLKUAK

HAU EZ

- Begirale mutilok, orokorrean, ez dakigu konpresa edo tampaxa zelan jartzen den.

- HIZKERA: Askotan entzun dugu euskara ez dela sexista, baina azken boladan kontrakoa entzuten ari naiz, ez dakit nire hitz egiteko moduak zer nolako eragina eduki dezakeen.

- Begiraleen jarrerak eta jokabideak sexistak izatea, begirale taldean ematen den hartu emanean, hizkeran, autoritatea begirale mutilen esku egotea....

HAU BAI

- *Joan neska edo profesional batengana eta kontaiouzu zer geratzen zaizun eta zure beharretarako ezinbestekoa dela. Informatu eta ikasi. Neskato batek zure laguntza eskatzen dizunean, ez eskakeatu!, orain badakizu zelan jartzen den.*

- *Hizkera ez da soilik maskulino edo femeninoa erabiltzea, askoz gauza gehiago dira, adibideak jartzen ditugunean norengan pentsatzen ari gara. Mutilei buruz hitz egiten dugunean generikoa erabiltzen dugu, eta neskak ez ditugu sartzen..Irainak ere... aztertu!: alua, maritxu sorgina, zorra, puta, cabrón....*

- *Neskek ere autoritatea (ez autoritarismoa) eduki behar dute, askotan ingurukoek ematen dute, beraz, beraien iritzia, proposamenak, egona, rola, funtzioak, eta abarrak errespetatu ditzagun.*

Neska-mutilen artean

EGOERA

Neska-mutilen artean arazoak eta haserreak daudenean indarkeria egoerak ematea, bai fisikoak (golpeak...) bai ahozkoak (irainak...). Hau da:

- Neska-mutilen arteko harremanetan jarrera sexistak daudenean: errespetu faltak, irainak, txantxak...
- Mutilek lidergoa eta protagonismoa hartzea taldeetan. Dinamizazioan lidergoaren eraginez erabakiak hartzea bakarrik kontutan izanik ozenkien eta bortizkien hitz egiten dutenak.

IRTENBIDEA

- Eman daitezkeen egoera hauek identifikatu, ez normalizat hartu
- Ez uste neska-mutilen arteko gauzak direla eta beraiek konpondu behar dituztela
- Arazoen konponbiderako jarraibideak ezarri taldean: Arauak adostu, egoerak aztertu, irtenbideak proposatu, parte hartzea sustatu, enpatia erabili, sentimenduak adierazi eta entzun, ...

AGENTEAK

- Begiraleak
- Neska-mutilak

AHOLKUAK

HAU EZ

- Neskato talde batek zelai errean ez jolastea erabaki du, kolpeak eta irainen ondorioz disfrutatu beharrean gaizki pasatzen dutelako.

- Igerilekuan ez dira ume guztiak sartzen ez bada begirale baten laguntzarekin, zenbait neskatok beraien burua arriskuan ikusten dute.

- Bazkal osteko ludotekan neska mutilak beraien kabuz jolas dezakete baina zertara jolastu gehienetan bi mutikok erabakitzen dutela ohartu gara, jostailuak eta espazioa haiek kudeatuz.

HAU BAI

- *Begirale taldeak denbora libreko jolasetan elkarbizitzarako umeekin adostea eta jarrera bortitzak zein irainak ez onartzea.*

- *Igerilekuetan beste umeak arriskuan jarri gabe ondo pasa eta jolastu daitekeela ikasi behar dugu guztion artean, indarra eta lehiakortasuna ekidinez.*

- *Bazkal osteko ludoteka jolas librean, ume guztiak jostailuak aukeratzeko eskubidea izateko txandak antolatuz.*

Program



azioan

2

Programazioa egiterakoan
Programazioa burutzean
Programazioa baloratzean



Ekintzen programazioa egiterakoan

EGOERA

Programaren atal guztietan genero ikuspegia kontuan hartzean. Hau da:

- Helburuetan neska eta mutilen berezitasunak ez sartzea.
- Denbora betetzeko programazioa egitea.
- Ekintzak planifikatzerakoan talde osoaren ezaugarriak eta taldekideen berezitasunak kontutan ez izatea.
- Gauza larregi lortu nahi izatea denbora laburrean.
- Balorazioa planifikatzerakoan bakoitzaren gaitasunak eta abileziak kontuan ez hartzea.

IRTENBIDEA

- Ekintzak egiterakoan helburua zein den argi izatea
- Partaideak nortzuk diren, taldearen ezaugarriak eta talde horretako pertsonen berezitasunak ezagutu
- Errealista izan eta ekintzen balorazioa egin

AGENTEAK

- Begirale taldean programazioaren ardura duenak
- Begirale talde guztia
- Neska-mutilak.

AHOLKUAK

HAU EZ

- Bideo-jokoetan agertzen diren rolak eta biolentzia motak jolas libreetan errepikatzen dira.

HAU BAI

- *Jolas libreak ikasteko unea ere bada, beraz, berriro ere, gidari lana egin beharko dugu: alternatibak eskaini, kritikatu jokaera, bestelakoak baloratu, arrisksuak zuzendu, hitz egin, azaldu,..*

AHOLKUAK

HAU EZ

- Askotan berdintasuna existitzen dela esaten digute, baina guk ez dela horrela sentitzen dugu.

- Gure auzora rumaniatar batzuk bizitzera etorri dira, guretzat berria da, ez dakigu nola jokatu.

- **ESPAZIOA:** Gure taldeko neska-mutilek astialdia daukate nahi dutena egiteko eta mutilak futboleari aritzen dira futbol zelaietan, neskak berriz izkina batean gelditzen dira. Egoera hau behin eta berrir errepikatzen da. Mutilei planteatu diegu neskekin batera jolastea baina ez dute nahi. Zer egin dezakegu? Nola banatzen dira espazioak? Neskentzako jolasak egin behar ditugu zelai erdian?

HAU BAI

- *Gaur egun egia da, emakumeok eta gizonok ohiko estereotipoetatik urrun izateko aukera daukagula; baina, oraindik orain, libre izateko, sentitzeko eta adierazteko mugak daude, bai aisialdian bai gizarteko beste esparruetan. Lagun diezazkiegun deskubritzen non dagoen genero diskriminazioa!*

- *Pertsona guztiak edonon parte hartzeko eskubidea eta errekurso guztiak eskura izateko eskubidea daukate, beraz, etorkinek nahi izatekotan atea eta gu irekia izan behar gaituzte. Elkarrekin ikas dezagun.*

- *Espazioaren erabilpena ez da neutroa, leku txikietan aritzen ohitzen bagara gerta daiteke espazio zabalei beldurra izatea, handi gelditzea, edo beti leku zabaletan jolasten badugu gerta daiteke gauza simple bat egiteko espazio pilo bat behar izatea, leku txikietan itotzea. Nahiz eta denbora libre izan saiatu beharko ginateke irizpide batzuk ematen beraien jolasetan, elkarrekin jolas dezaten, bai espazio handietan bai txikietan, guztion gustukoan diren gauzetan.*

Programazioaren ekintzak burutzean

EGOERA

Begiraleen lan taldean aurreprestakuntzan adostutakoari paso eginez, praktikan norberaren izaera, rol estereotipoak, azalarazten dira. Hau da, muturreko egoera baten aurrean, bat batean, gure izaeran dauden jarrera sexistak (gizarteratze prozesuaren ondorioa) kanporatzen ditugu.

IRTENBIDEA

Aurre-prestaketan jarrerak lantzea, lehenengo egunetan jardueretan begiraleetako batek behatzaile lanak egitea, eguneko ebaluaketan norberaren jarreraren autoebaluaketa batekin astea

AGENTEAK

Begiraleak.
Neska-mutilak.
Zuzendariak eta koordinatzaileak.

AHOLKUAK

HAU EZ

- Egiten diren kirol ekintzetan mutilen parte hartzea areagotzen da, neskena, berriz, gutxitzen da.

- Askotan berdintasunaren izenean eta parte hartze mistoa lortzeko asmoz, neska edo mutilak ekintza bat egiteko behartzen ditugu. Izkinetan gelditzen dira. Oso deseroso daude.

- Guk jolas kooperatiboak prestatzen ditugu, baina, beraiek ere badakite konpetitzen, eta, buf, askotan hori da jolasa.

- Jolasetan eta kirol ekintzetan genero estereotipoen rola betetzen dituzte. Zaila da "bere sexukoa" ez den beste paper bat onartua izatea.

HAU BAI

- *Ekintzak prestatu baino lehen, zeintzuk diren neskei eta mutilei gustatzen zaizkienak, nahiago dutenak edota normalean egiten dituztenak pentsatu; ondoren, zer nahi dugun adostu, adibidez, mutilak soka saltoan aritzea, neskek egiten duten moduan, nahi badugu (arauak errespetatuz, indarra ez erabiltzen, ...) erakutsi beharko diegu zelan egin, eta ondo egitekotan animatu, motibatu, txalotu,*

- *Egiten dutenak libre eta boluntario izan behar du. Guk ondo antolatu beharko dugu, batzuetan neskak bakarrik, batzuetan mutilak bakarrik, beti motibatzen, beti errespetatzen eta pixkanaka.*

- *Jolasak partehartzaileak izan behar dituzte, gu gidariak gara, guk bide txarretan oztopoak jarriko ditugu.*

- *Eredu desberdinak daudela erakutsi, antzeztu, bizi, irakurri, bilatu, ...*

Programazioa ebaluatzean

EGOERA

Jarduerak egin ostean ez dugu neurtzen horren baliagarritasuna eta partaideek zer bizi izan duten, beraz:

- Beste batean programazio berdina erabiliko dugu, egoera eta partaideen ezaugarriak kontuan hartu barik.
- Ekintza horiek sortzen dituzten egoera diskriminatzaileak errepikatzen dira, errefortzu moduan funtzionatuko dute.

IRTENBIDEA

Ebaluazioa guk egindako ekintzarekin egoera diskriminatzaile bat aldatu dugun ala ez jakiteko baliabidea daukagu, beraz, ondo prestatzeko plangintzaren beste pausu bat da. Prozesu honek erantzun behar du:

- Zer ebaluatu?
- Zertarako ebaluatu?
- Nork ebaluatuko du?
- Zelan ebaluatu?. Neska eta mutilen berezitasunak kontuan hartuz.
- Zelan izan da jardueren gauzapena? Positiboa eta negatiboa.
- Zeintzuk izan dira emaitzak?
- Zein irizpide erabiliko ditugu? Neskentzat eta mutilentzako irizpide espezifikoak.
- Zelan erabiliko ditugu ebaluazioaren emaitzak?
- Nori ezagutaraziko diogu?

AGENTEAK

- Arduradun guztiak
- Begirale talde guztia.
- Parte hartzaileak.

AHOLKUAK

HAU EZ

- Jarduerak ebaluatzeko jarri duten interesaren arabera egiten dugu. Gustatu bazaie ondo dago.

- Mutil bat arduratsua denean, gauzengatik kezkatzen denean neska bat baino gehiago baloratzen dugu, jarrera ona daukalako beste mutilekin konparatuta.

- Jarrera eta portaera aldaketak ez ditugu. neurtzen, umez ume ez dugu ebaluazioa egiten. Umeei ez diegu galdetzen zelan sentitu diren ekintzaren bat egiten eta sexuaren arabera ea desberdintasunik egon diren

- Neskak ondo baloratzen ditugu orokorrean lasaiak direlako eta arazorik ematen ez dutelako.

HAU BAI

- *Argi eduki behar dugu zeintzuk diren gure helburuak eta ea bete diren. Ondo pasatzea bat da, baina ez bakarra.*

- *Oso ondo dago horrelako portaerak mutilengan baloratzea, baina ezin zaie nesken portaerei baino garrantzi gehiago eman.*

- *Interesgarria litzateke ume edo gazte bakoitzarengan zer nolako garapena ematen den ikustea. Iritzi orokorra hartzen dugu eta askotan norbanakoaren esperientzia jakitea inportantea da.*

- *Lasaitasuna edota pasibotasuna positiboa izan daiteke eta baloratzen ikasi behar dugu, baina ez arazoak eman edo ez emateagatik.*

Talde eg



ituran

3



EGOERA

Begirale taldeko egituran argi ez gelditzea bakoitzak bete behar duen lana, eta nahasteak izatea horren ondorioz:

- Batek ardura guztiak hartzea edo berarenak ez diren ardurak hartzea.
- Norbait beste batenak diren rolak jokatzera, lidergoa hartzea edo alderantziz.
- Batzuk bere rolak ez betetzea, aurrera ez eramatea.

IRTENBIDEA

• Hasieratik arduradunak lanen eta funtzioen banaketa argi uztea eta giza abileziak erabiltzea: Komunikazioa, kritikak egin eta jasotzen ikasi, enpatia eta asertibitatea, ...

AGENTEAK

- Begirale taldea.
- Koordinatzaileak edota zuzendariak.
- Partehartzaileak.

AHOLKUAK

HAU EZ

1• Auzolandegi batean begirale neska batek hartzen du kanpoko jendearekiko harremanen ardura. Udaletxeko ordezkariak bisitan joaten direnean, beti mutila den begiralearengana zuzentzen dira, eta honek gustura betetzen du hauek ezarritako papera. Azkenean, ikusita udaletxetik bozeramailletza aldatu dutela, guztiek onartzen dute horrela izatea eta, hasierako arduraduna, beste funtzioak betetzera pasatzen da.

2• Kanpamendua muntatzen ari gara eta egurrezko mahai batzuk egin behar dira. Lan honetarako guztion laguntza behar da. Lan taldeak sortzen dira eta, laster, begirale neska batek lan honetarako oso trebea ez dela esan eta beste gauzak egiteari ekin dio.

3• Arratsaldeko 5ak dira eta udalekuan ekintzekin hastea planifikatuta dago. Begirale neska batek dinamizatu behar du jolasa. Mutil batzuk oraindik futboleant ari dira eta beraiekin begirale mutil bat. Honek oso gutxi falta zaiela amaitzeko eta uzteko 10 minutu eskatzen dio. Neskak, apur bat haserre, itxarotea erabakitzen du.

4• Begirale bakoitzak ume talde baten ardura dauka, eta, printzipioz, ume horiek laguntzeko eta hezteko figura bat da. Hala ere, banatuta ez dauden funtzio batzuk sexuaren arabera ematen dira, horrela, sexualitatearekin lotutakoak (masturbazioa, hilekoa,...)

AHOLKUAK

HAU BAI

1• Funtzioak argi banatuta badaude kanpoko eragileengatik ezin ditugu aldatu, are gutxiago sexuen arabeko estereotipoak direla medio. Hau da, nahiz eta udaletxeko ordezkariak pentsatu arduraduna mutila dela, argi gelditu behar da nor den eta egoera zuzendu.

2• Lanak guztion artean banatu ditugu eta batzuetan gerta daiteke gure gustukoak ez izatea, hala ere, bete behar ditugu. Ezin dugu genero estereotipoen arabera gure betebeharrak aukeratu horrela, betiko ereduak mantentzen ari baikara.

3• Programazioa errespetatzeko dago, eta taldearen zati bat ezin da itxaroten egon beste zatia futbolearen ari delako, eta are gutxiago begirale baten babesarekin. Horrelako portaerarekin begirale neskaren autoritatea gutxiesten ari da.

4• Begirale guztiok gure ume taldearen beharrak asetzeko prestatuta egon behar dugu, hau da, bai neska eta bai mutilen garapen psikofisiologikoa ezagutu behar dugu, eta beraien kezka eta galdera erantzuteko prest egon.

bueno lagunok!!!
momentuz hau da
pentsatu dudan guztia.
seguru zuek buruan
honi buruzko ideia
asko daukazueta!. nahi
baduzue,
harremanetan jar
gaitzke... ni
harrapatzeko
modua...

Emaisia Elkarte
Zabalbide 26 behea
48006 Bilbo. Bizkaia.
Tel: 944320445
Fax:944335905

e-maila: emaisia@urtxintxa.org

ondo pasa eta laster arte!!!!!!!!!!



